

AKTA

UDAL OSOKO EZ-OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ezohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2025/06/06

Ordua: 08:00-ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Edorta Fernandez Etxepeteleku

Oihana Irastorza Gonzalez

Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi

Ibintza Irigorri Iriarte

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona

Idazkaria:

Xabier de la Mota Vazquez

Ezin etorria adierazi dute:

AZTERGAIAK:

1. Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketako eta udal-hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzua emateko eta horretarako beharrezkoa den kamioia errentamendu erregimenean hornitzeko kontratuaren esleipena onartu zen.

-I-

OIARTZUNGO UDALERRIAN HIRI-GARBIKETAKO ETA UDAL-HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIOKO ZERBITZUA EMATEKO ETA HORRETARAKO BEHARREZKOA DEN KAMIOIA ERRENTAMENDU ERREGIMENEAN HORNITZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA

Alkateak adierazten du, kontratuak eskaintzen duen zerbitzuaren diru kopuruarengatik Udal Osoko batzarretik pasa behar duen gaia dela, hortaz ez-ohiko batzarra egin dela kontratuaren esleipena onartzeko.

Idazkariak hitza hartzen du, azpimarratzeko kontratuaren diru kopuruarengatik egin dela ez-ohiko batzarra.

Guzti hau kontutan hartuta, Kontratazioko teknikariaren txostenaren baitan eta Lurralde batzorde informatzaileak 2025eko ekainaren 4ean egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehen.- Esleitzea SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTOS S.L. enpresari Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketako eta udal-hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzua emateko eta horretarako beharrezkoa den kamioia errentamendu erregimenean hornitzeko kontratua, honako baldintzetan, besteak beste:

- Zerbitzuaren prezioa: 1.545.157,29 euro, BEZik gabe (1.699.673,01 euro, BEZa barne). Prezio horretan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor gastu guztiak, zergak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira, baita kontratistaren etekin industrial ere.
- Kamioiaren prezioa: 0,01 euro, BEZik gabe (0,01 euro, BEZa barne).
- Kontratuaren iraupena: 5 urtekoa kontratua sinatzen denetik, luzapenik gabe. Kamioia entregatzekoa, 10 hilabetekoa.

Gastua aurrekontuko honako partiden kontura izango da:

1 0211.227.162.10.04 2025 (5389)

1 0211.227.163.00.01 2025 (5394)

Bigarrena.- Kontratuaren formalizazioa ebazpen honen jakinarazpena lizitatzailerei bidali eta 15 egun baliouduneko epea igaro ondoren egingo da.

Hirugarrena.- Ebazpen honi dagozkion jakinarazpenak eta argitalpenak egitea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 151.artikuluarekin adostasunean.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 08:10ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



Sin.: Xabier de la Mota

